



2021ko UDALEKU IREKIETAKO BEGIRALE, ZUZENDARI ETA PRAKTIKALDIRAKO PERTSONA BAT KONTRATAZEKO OINARRIAK

1. Deialdiaren xedea.

Oinarri hauen helburua Amezketako Udalak antolatzen dituen “Udaleku Irekietako” begiraleen zein koordinatzailearen aldi baterako lan-kontratuak egiteko deialdia arautzea da. Aisialdiko begirale titulua eskuratzeko praktikaldia egin behar duen pertsona baten izendapena ere arautzen da.

Kontratuaren iraupena, gutxi gorabehera, hilabetekoa izango da (udalekuaren iraupena) eta lanaldia, astelehenetik ostiralera, goizeko 9.30etatik eguadiako 13.30tara izango da.

Aukeratuko den begirale kopurua, aldiz, izena ematen duen hurren kopuruaren arabera izango da. Horrenbestez, deialdi honekin zerrenda bat egingo da eta izangaiek lortutako puntuak emango dute zerrenda horren hurrenkera.

Aurtengoan udara berezia izango da, azken hilabeteetan herritarrek nozitu duten larrialdi sanitarioaren ondorioz, “normaltasun berriak” udaleku irekien antolamendua erabat baldintzatuko duelako. Halere, Amezketako Udalak, tokiko autonomiaren printzipioan oinarrituta, udaleku irekiak antolatuko ditu, larrialdi egoeratik eratorritako araudi orokorrak ezarriko dituen osasun eta segurtasun baldintzekin konplinita.

2. Prozesuan parte hartzeko baldintzak.

Onartua izateko eta, hautaketa prozesuan parte hartu ahal izateko ondorengo baldintzan bete beharko ditu:

1. 18 urte beteta izatea, izena emateko epea bukatuko denerako.
2. Udalekuen prestaketan eta udalekuak irauten dituen egun guztietan parte-hartzea eta disponibilitatea izatea.
3. Aisialdirako begirale edo zuzendari titulua izatea.
4. DBHko ikasketak eginda izatea.
5. Euskaraz ongi ulertu eta hitz egitea.
6. Funtzioak behar bezala betetzea eragotz dezakeen gaixotasunik nahiz muga fisikorik ez izatea.



7. Inolako administrazio publikoaren edo autonomia erkidegoetako konstituzio nahiz estatutu organoen zerbitzutik diziplina-espediente bidez baztertu gabea izatea eta funtzio publikoak betetzeko ezgaituta ez egotea.

3. Eskabideak aurkeztea

Epea: maiatzaren 11tik maiatzaren 25era, biak barne.

Lekua: Amezketako udaletxeko bulegoetan. Orduategia: 8:00etatik 15:00etara.

Baita ere, gazteria@amezketa.eus posta elektronikoan.

Halaber, aukera izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako moduan, 16.4 artikuluan araututakoari jarraiki, eskaerak posta bulegoetan ere aurkez daitezke.

4. Aurkeztu beharreko agiriak

Begiraleek zein koordinatzaileak beraien *Curriculum Vitaea* aurkeztu beharko dute.

Behin hautaketa prozedura hau burututa eta begirale nahiz koordinatzailearen izendapenak eginda, Amezketako Udalak hautatuei oinarri hauetan agertzen diren baldintzak eta irizpideak ziurtatzen dituzten agiriak eskatuko dizkie, arrazoizko epe batean aurkez ditzaten. Agiri hauei erantsi beharko zaie Natura Sexualeko Delitu Ziurtagiria.

5. Kalifikazio – epaimahaia

Merezimenduak baloratuko dituen epaimahaia osatuko dute: Amezketako Udaleko gazteriako ardura duen zinegotzia eta gazteri dinamizatzailea. Idazkari lanetan Amezketako Idazkari-kontu hartzailea arituko da.

6. Hautaketa prozesua

Ondorengo taulatan agertzen diren irizpideei ezartzen zaizkien puntuazioen arabera, hautagai bakoitzeko puntuazio bat aterako da eta horren arabera kontratazioa egiteko erabiliko den hurrenkera lortuko da.



BEGIRALEEN HAUTAKETARAKO IRIZPIDEAK ETA PUNTUAKETA:

OINARRIA	PUNTUAKETA
Amezketako udaleku irekietan eskarmentua.	0,5 puntu (urte bakoitzeko) – 2 puntu (gehienez)
Udaleku itxitan esperientzia (6-10/15 egun bitartekoak)	0,3 puntu (txanda bakoitzeko) – 1,5 puntu (gehienez)
Udaleku irekietan esperientzia	0,3 puntu (urte bakoitzeko) – 1,5 puntu (gehienez)
Haurren heziketaren inguruko ikasketak bukatuak izatea. (magisteritza, haur hezkuntza teknikaria, gizarte hezkuntza, gizarte integrazioa eta pedagogia)	2 puntu
Haurren heziketaren inguruko ikasketak burutzen aritzea. (magisteritza, haur hezkuntza teknikaria, gizarte hezkuntza, gizarte integrazioa eta pedagogia)	1 puntu
EGA titulua edo baliokidea.	2 puntu

ZUZENDARIAREN HAUTAKETARAKO IRIZPIDEAK ETA PUNTUAKETA:

OINARRIA	PUNTUAKETA
Amezketako udaleku irekietan eskarmentua.	0,5 puntu (urte bakoitzeko) – 2 puntu (gehienez)
Zuzendari bezala udaleku itxitan edo irekietan esperientzia izatea.	0,3 puntu (txanda / urte bakoitzeko) – 1,5 puntu (gehienez)
Hezitzaile bezala udaleku itxietan edo irekietan esperientzia izatea.	0,3 puntu (txanda / urte bakoitzeko) – 1,5 puntu (gehienez)
Haurren heziketaren inguruko ikasketak bukatuak izatea. (magisteritza, haur hezkuntza teknikaria, gizarte hezkuntza, gizarte integrazioa eta pedagogia)	2 puntu
Haurren heziketaren inguruko ikasketak burutzen aritzea. (magisteritza, haur hezkuntza teknikaria, gizarte hezkuntza, gizarte integrazioa eta pedagogia)	1 puntu
EGA titulua edo baliokidea.	2 puntu

7. Hautagaien zerrenda

Hautagai bakoitzaren azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako emaitzen batura izango da. Berdinketa izanez gero, ordena ezartzeko honako irizpide hauek hartu dira kontuan, hurrenez hurren: 1. Lan esperientzia, 2. Ikasketa – mota.



Hautaketa bukatu ondoren, Epaimahaiak lortutako puntuazioaren ordenaren arabera zerrenda argitaratuko du Amezketa Udaleko iragarki taulan eta Web orrian, eta onarpen proposamena igorriko dio dagokion organoari, aurretik aipatutako kontratazioak egiteko.

8. Aisialdi begirale titulua eskuratzeko praktikaldia egiteko aukera

Amezketako Udalak begirale postu bat erreserbatuko du Aisialdi begirale titulua eskuratzeko ari den pertsona batek bere praktikaldia egin ahal izateko. Praktikaldi hau egin ahal izateko, eskatzaileak Aisialdi begirale titulua ateratzen ari den begirale eskolaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko du non egiaztatzen baiten ikastaroaren zati praktikoa burutu duela.

Praktikaldi postu honetarako hautagai bat baino gehiago aurkeztuko balitz, hautaketa egiteko irizpideak ondorengoak izango dira:

OINARRIA	PUNTUAKETA
Haurren heziketaren inguruko ikasketak bukatuak izatea. (magisteritza, haur hezkuntza teknikaria, gizarte hezkuntza, gizarte integrazioa eta pedagogia)	2 puntu
Haurren heziketaren inguruko ikasketak burutzen aritzea. (magisteritza, haur hezkuntza teknikaria, gizarte hezkuntza, gizarte integrazioa eta pedagogia)	1 puntu
EGA titulua edo baliokidea.	2 puntu
Gazte Elkarteko bateko kide izatea	1 puntu

Praktikaldiak 350 €ko ordainsaria izango du.

9. Begirale, zuzendari eta praktikaldiko pertsonaren hautaketa egin ondoren

Behin hautaketa prozesua amaituta, Udalak begirale, zuzendari eta praktikaldiko pertsonaren izendapenak onartuko ditu. Behin hau eginda, udaleku irekiak antolatze bilerak antolatuko dira eta hautatuak bertan parte hartu beharko dute, ezinbestean.



AMEZKETAKO UDALA



Bestalde, eta udaleku irekiak hasi baino 15 egun lehenago, begirale, zuzendari eta praktikaldiko pertsonak Izaera Sexualeko Delitu Ziurtagiria aurkeztu beharko dute Udalean.